



Doinu barrokoak Brigitarren kaperan.- Ostiralean komentura gerturatu ziren herritarrek egitarau klasiko zabal batez gozatu ahal izan zuten 'Ars Combinatoria' taldearekin. Kapera bete zuten musika klasikoaren jarraitzaileek. Bi zatitan antolatu zuen hirukoteak 'Quando fuera menester glosar' izeneko emanaldia. Kontzertuko zati bakoitzean hainbat konpositoreren seinak pieza eskaini zituzten. Konpositore espainiar eta batez ere, italiarren piezak izan ziren erreperatorioan Diego Ortiz, Giovanni Batista Fontana, Andrea Falconiero, Dario Castello, Girolamo Frescobaldi besteak beste, Errenazimendu garaikoak denak, XV. eta XVI. mendekoak. Ibilbide luze taldea da Danok Kidek bere Musika Topaketetara gonbidatutakoa, Elsa Ferrer (biolina), Alberto Campanero (biolontxelo) eta Canco Lopez (klabezina). 1991n jaio zen Ars Combinatoria. XVI. mendeko polifonia espainiarra abesteko, J.S. Bach konpositore ezagunaren abestiak jotzeko zein musika propioa garatzeko interesarekin hasi ziren jotzen. Hainbat hiritan eskaini dituzte kontzertuak, eta baita Ingalaterran eta Italian ere. Ostiraleko kontzertuan txalo zaparrada luzeak eskaini zizkieten entzuleek.

2 POLITIKA

Podemos-Ahal Dugu Lasarte-Oria-ren aurkezpen jendetsua

Larunbatean aurkeztu zuten Manuel Lekuonan Podemos-Ahal Dugu Lasarte-Oria alderdia. Bertan datozen udal hauteskundetan egoteko asmoa azaldu zuten eta horretarako sinadura bilketa mar txan jarriko dutela aurreratu zuten. 500 herritarren babes eskatzen die legeak.

3 JAIA

Gaur danbor hotsak nagusi izango dira herriko eskoletan

San Sebastian bezperan danborrada joko dute herriko ikastetxeetako ikasleek. Guztiek Sarriegiren doinuak ondo ikasi dituzte azken asteetan eta onena emango dute emanaldi berezietan. Guztiek egingo dituzte gaur arratsaldean saioak guraso eta irakasleen aurrean.

4 INAUTERIAK

Txantxo mozorroa egiteko ikastaroa datorren astean

Euskal Inauterian parte hartzea handitzeko asmoz, Ttakunek txantxo mozorroa egiteko ikastaroa egingo du urtarrilaren 26ean eta 31ean. Familiei zuzenduta egongo da eta doakoa izango da. Aurrez Ttakuneko bulegoan izena ematea gomendatzen dute sustatzaileek.



ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

POLITIKA

Podemos-Ahal Dugu taldearen aurkezpena

Udal hauteskundeetara aurkezteko asmoa azaldu zuen taldeak, horretarako 500 sinadura behar ditu

Herritar asko hurbildu zen herriko Podemos-Ahal Dugu taldearen aurkezpena. Orain arte hainbat deialdi eta bilera publiko egin arren, larunbatean datozen udal hauteskundeetara aurkezteko asmoa azaldu zuten. Hain zuzen ere, legeak behartzen du aurkezteko babes jakin bat eduki behar duela alderdiak, herrian, 500 pertsonak adierazi beharko diote Podemosi atxikimendua, sinadura eta NAN zenbakia emanda.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Podemos-Ahal Dugu taldearen aurkezpena egin zen Manuel Lekuonan, herritar asko gertatu zen, aretoa bete arte. Hizlari lanetan aritu ziren orain arte Ahal Dugu alderdia herrian osatzeko lanetan aritutakoak, horien buru edo koordinatzaile, aurkezpenean azpimarratu bezala, Santiago Calahorra izanda.

Hizlarietako batzuek euren azalpenak bi hizkuntzatan emateko ahalegina egin zuten. Taldearen finantzaketari dagokionez, kide bakoitzak aportatzen duenarekin aurrera egiten dutela azaldu zuten, "ez dugu banketxe batean mailegu bat eskatuko. Ez dugu sistema horretan sinisten".

Zirkulo bakoitza indepen-

dentea dela argi utzi nahi izan zuten "Donostiako zirkulukoak ez digu esango zer egin edota nola jokatu gure herrian". Erabakitzeko eskubidea modu zabalean defendatzen dutela ere esan zuten, "sigla politikotatik haratago, herritar bakoitzak bere etorkizuna, herria, estatua nolakoa nahi duen erabakitzeko eskubidea duela uste dugu".

Herriak egun duen %18 langabetu tasa oso larria dela aipatu zuten eta lehentasunezko gaia izan beharko luke hau euren programan. "Hala ere, hau osatu gabe dago, jende gehiago nahi dugu gurekin gai ezberdinen inguruan eztabaidatu eta programa osatzeko". Prozesu parte hartzaile eta irekia da Podemosek herrian burutu nahi duena, "zerrendak ere hala osatuko dira, hauetan



Adin guztietako jendea elkartu zen Manuel Lekuonan Ahal Dugu ezagutzeko.

egon nahi duen jendearekin osatu eta ostean bozka bidez alderdia babesten duten herritarren artean, erabakiko da".

Aztertu beharreko gaiak

Hauteskunde programa osatuta egon ez arren, hainbat gai zerrendatu zituzten "orain arte bildutako jendearen artean uste dugu hauek direla kontutan hartu beharrekoak, hala ere, zirriborro bat besterik ez da".

Lehentasuna lana sortzea izango litzateke, "udalean lanpostu gehiago sortu daitezkeela uste dugu". Etxebizitza sozialak, menpekotasuna duten pertsonentzat laguntza gehiago, herriaren parte hartzea udal

erabaki guztietan, zerbitzuak hobetu, haurrentzako estalita dauden parke edota jolaslekuak sustatzea, obra eta zerbitzuen kontratuen esleipena beti deialdi publikoz egitea, "18.000 euro azpikoak ere, eta noski, inoiz ez kontratu horiek zatitu deialdi publikoz esleipena ez egiteko. Jardun arrunta da hori erakundetan"; azkenik, hezkuntza eta kirol alorretan hobekuntzak egingo litzuzke Podemosek "denek dakigu kirol instalazio zaharkituak ditugula batetik eta Michelingo kirol gunea esaterako beti beteta dagoela. Arazo hauei irtenbidea bilatzea funtsezkotzat jotzen dugu. Aldi berean,

hezkuntza oso gai garrantzitsua dela uste dugu eta konpromisoa azaltzen dugu herriko eskole-tako guraso elkarte eta gainontzeko eragileekin batera lan egiteko, beti ere herriko zentroen arteko berdintasunezko tratua bermatuz".

Azken puntuan, "gizarte aholkularia" figura sortzearen aldeko apustua egingo luke Podemosek "udalera herritar batek kexa bat edo arazo baten berri eman nahi duenean, uste dugu ez zaiola garrantzia eta jarraitu beharreko pausuen aholkularitza ematen. Figura honen funtzioa kexa edota zalantza modu egokian bideratzea litzateke, formulario bat betetzea ez da nahikoa".

Bukatzeke, Santiago Calahorrak azaldu zuen hauteskundeetara aurkezteko legeak 500 herritarren bermea eskatzen duela eta horretarako, sinadura biltzeko kanpaina martxan jarriko dutela. Herritarrek euren bileratan parte hartzera gonbidatu zituen ere.

Eskerrak eman eta politika beste modu batera egitea posible dela esan zieten herritarrei. Amaitzeko, herritarrek izan zuten aukera galderak egiteko.

Beñat Beltranentzat PSE-EEk zozketatutako bizikleta

Herriko PSE-EEk azken urteetan egin bezala, jostailu biltzeko egin zuen Gabonetan. Jostailuak utzi zituzten guztien artean bizikleta bat zozketatu dute eta aurtengoa Beñat Beltranentzat izan da.

Gabonetan herriko PSE-EEk jostailu biltzeko egin zuen azken urteetan egin bezala. Aurten ere emaitzarekin oso pozik zeudela azaldu zuen Jesus Zaballosek ostegunean. "Jende asko etorri da jostailuak eta ipuinak uztera eta benetan eskertuta gaude".

Bildutako guztia, Caritasek banatu zuela azpimarratu zuen bozeramale sozialistak.

Jostailuak utzi zituzten

herritarren artean bizikleta baten zozketa egin zen eta Beñat Beltranen zenbakia izan zen honetan saritua.

Beñaten amak saria jasotzean azaldu zuenez, Beñatek bere arrebarekin batera hautatu zituen eman nahi zituen jostailuak "garrantzitsua da txikitatik konturatzea ume batzuek bizi dituzten zailtasunez".

"Ipuinak eta joko desberdinak ekarri genituen" esan zuen Elaia.


Beñati asko gustatu zitzaion bizikleta eta Jesus Zaballosekin batera pozik azaldu ziren bera eta bere arreba Elaia argazkian.



Jesus Zaballosek eman zion bizikleta Beñat Beltrani, argazkian honen arreba Elaia ere jarri zen.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Jon Altuna
E. Iñigo Gonzalez
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Jone M. Hernandez,
Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu
Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

JAIA

Danbor hotsak herrian

San Sebastian eguna ospatuko dute gaur herriko ikastetxeetan

Gogor entsegatu dute Lasarte-Oriako ikastetxeetako umeez azken asteetan eta gaurko egunean zehar erakutsiko dute danbor-jole trebeak direla. Bihar da San Sebastian eguna, hilaren 20a, baina herriko ikastetxeek bezperan astinduko dituzte danborrak. Danbor hotsak entzun ahalko dira beraz Zumaburu, Sasoeta, Garaikoetxea eta Landaberri ikastetxeetan.



Sasoeta-Zumaburu ikastetxea izango da hasten lehena, arratsaldeko 15:00etan.

TXINTXARRI

Gaztetxoaren guraso, ahaide eta lagunez josita egongo dira gaur Lasarte-Oriako ikastetxeak, San Sebastian egunaren bezperan ozen eta gogotsu astinduko baitituzte danborrak.

San Sebastian martxa, Tatiago, Polka eta Iriyarena bezalako doinuak entzungo dira gaur arratsaldean herrian. Raimundo Sarriegi ezagunaren doinuez gain, ez litzateke harriztekoa izango Realaren zein Lasarte-Oriaren ereserkiak entzutea, egun hauetan klasikoak izaten baitira.

San Sebastian eguna bihar izango da, hilaren 20a, baina herriko ikastetxeek gaurko egunean zehar alaituko dute herria danborraren bitartez.

Sasoeta-Zumaburu

Zumaburu eta Sasoeta ikastetxeetako gaztetxoak izango dira entsegatutakoa erakusten lehenak. Zumaburukoak 15:00etan hasiko dira danborrak astintzen, eta Sasoeta ikastetxeetako txanda ordu



Landaberri-Garaikoetxea ikastetxeetakoak 15:45ean hasiko dira danborrak astintzen.

erdi beranduago izango da: 15:30ean hasiko dira.

Landaberri

Landaberri-Garaikoetxeako haurrak 15:45ean hasiko dira danborrak astintzen. Landaberri Lehen Hezkuntzako ikasleak berriz, Hipodromo paretik, ordu laurden beranduago dira hastekoak.

Danbor hotsak ozenak izango dira bihar herrian, herriko ikastetxeek euren omenaldi berezia egingo baitiote San Sebastian egunari. Emanaldiak nahiko segidan izango dira gainera, 15:00etan hasten baita lehena eta ordu bate beranduago azkena. Danbor-festa gaur Lasarte-Orian.

IKASTAROA

Janari-manipulatzailerik ikastaroa

Elkolab enpresak janari-manipulatzailerik ikastaroa emango du Lasarte-Oriako Udalaren Osasun Departamentuarekin elkarlanean. Urtarrilaren 27an emango du ikastaro hori, Anbulategiko erabilera anitzeko bigarren solairuan, 9:30etik 13:30era. Interesatuta dauden pertsonak 45 euro ordaindu beharko dituzte ikastaroan izena-emateko. Langabetuentzat prezio berezia jarri dute: 35 euro.

Urtarrilaren 27ko ikastaro hori ostalaritzako sektoreari dago zuzendua, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak eskatzen duen autokontrolaren ingurukoak izango dira edukiak. Informazio gehiago eskuratu edo izena-emateko, bi telefono jarri dituzte herritarren eskura: 943 53 33 03 (Elkolab) eta 943 36 16 05 (KIUB/OMIC).

HEZKUNTZA

EPA-HHI-n matrikula epea zabalik

Lasarte-Oriako EPA-HHI-n matrikula egiteko aukera dago urtarrilaren 31a arte. Hezkuntza arautukoek dagoeneko aukera dute Goi Mailako Zikloetarako prestakuntza ikastaroetan, DBHko titulua lortzeko ikasketetan edota etorkinentzat gaztelerako kurtsoan izena emateko.

Hezkuntza ez arautuaren baitan eskaintzen diren; euskara, ingelesa, informatika, tertulia literarioan edota elikaduraren inguruko ikastaroan izena emateko epea berriz, urtarrilaren 26ean zabalduko da. Matrikula doan da eta hau egiteko HHI zentrotik pasa beharko da, Anbulatoriaren eraikinean 3. solairuan kokatuta dago. Informazio gehiago eskuratu edo zantzak argitzeko, 943 36 66 08 telefonora dei daiteke edota info@epalarte.es helbidera idatzi. Eskolak www.epalarte.es webgunean du informazio guztia.

IRTEERA

Txuri Urdinera txangoa eta babarrun jana

Zabaletako lagunek Txuri Urdinera irteera antolatu dute urtarrilaren 24rako. Larunbatean, urtero bezala goizean Txuri Urdinera joan eta gero Xirimiri elkartearen babarrun jana egingo dute. Bazkarira joan nahi dutenek, osteguna 22 baino lehenago, auzoko dendan jarrita egongo den zerrendan izena ematea eskatzen dute Zabaleta Auzolaneko kideek. Txuri Urdinera joateko ez dago apuntatu beharrik.

GAZTEAK

LMLK-ko ikasleen albistegia sarean

Landaberriko DBH3. mailan LMLK tailerlean dauden ikasleek prestatu dute euren hirugarren albistegia. Kasu honetan herrian gertatutakoei arreta jarri beharrez, elkarrizketa sorta egin dute ikaskideen artean. Albistegia www.txintzarri.eus atarian jarri dugu eta Youtuben ere aurki daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=Ki-VsCrtVj0>.



Usurbilgo lanbide-eskolak ikastaro eskaintza zabala prestatu du

Urte berriaren hasierarekin batera hainbat ikastaroko eskaintza egin du Usurbilgo lanbide-eskolak. Kurtso horiek langile zein langabetuei zuzendutakoak dira. Ikastaro guztiak doakoak izango direla jakinarazi dute Lanbide-Eskolak arduradunek.

Ikastaro-sorta zabala eskaini du Usurbilgo Lanbide Eskolak: 27 guztira, bost azpimultzotan banatuta. Ikastaroak astelehenean ostegunera izango dira, 18:00etatik 21:00etara. Lanbide Eskolak ohartarazi dutenez, kurtsoen hasiera-datak "behin

behinekoak" dira, eta "taldeak osatzen direnean" hasiko dira.

Bost azpimultzotako

Lehen esan bezala, Usurbilgo lanbide-eskolak 2015ean eskainiko dituen ikastaroak bost azpimultzotan banatu dituzte.

Honako hauek dira kategoriak: 'Fabrikazio mekanikoa' (10 ikastaro guztira), 'Elektrizitatea eta elektronikoa' (5), 'Energia eta ura' (3), 'Instalazioa eta mantentzea' (5) eta 'Administrazioa eta kudeaketa' (4).



Usurbilgo Lanbide Eskolak ikastaro ugari eskaintza prestatu du.

Ikastaroen ordu-kopurua nahiko anitza da, eta kantitate horren arabera ordu kopuruak edukiko dituzte.

Kurtso luzean 'Instalazio elektriko automatizatuak eta automatismo-instalazioak' da, 240 ordukoa. Aldiz, '3D

inprimagailuak' eta 'Termografia' dira laburren, 12 ordukoak biak.

Era berean, ikastaroen hasiera datak desberdinak dira. Urtarrilean, otsailean, martxoan zein apirilean hasiko dira 27 ikastaro horiek.

Ikastaroari buruz informazio gehiago eskuratu nahi duenak (azpimultzotako aukerak zeintzuk diren, ordu kopurua, hasiera data...) 943 36 46 00 telefonora hots egin dezake edo, bestela, www.lhusurbil.com eta info@zubigune.org web orrialdeetan begiratu.

3. bertso desafioa ere herrikoentzat

Andoingo bertso eskolaren aurkako saioan 21-19 punturekin gailendu ziren herrikoak

Ostiral iluntzean eskaintza zabala izan zuten herritarrek, musika, antzerkia eta bertsoak. Jalgin hirugarren bertso desafioa jokatu zuten herriko **Erra!** bertso eskolako kideek Andoingo bertso eskolako aurka. Aurrekoetan bezala, bertaratutakoek egin behar izan zuten epaimahai lana eta 21-19ko emaitzarekin herrikoentzat izan zen hirugarren garaipena. Azken bertso desafioa otsailaren 6an izango da Azpeiti Errezil eta Azkoitiko Erriarraitz Bertso eskolako aurka.

TXINTXARRI

Gogotsu etorri ziren Andoindarrak herriko bertso eskolako kideekin indarrak neurtzera. Hala ere, eta soilik hiru bozkako aldearekin, herrikoek hirugarren garaipena eskuratu zuten ostiralean Jalgin egindako bertso desafioan.

Erra! Bertso eskolako kideen artean aldatetak izan ziren, Asier Azpirozen orde, Ane Labaka aritu zen bertsoan Amaia Agirre eta Beñat Iguaranekin batera eta gai jartzaile lanak Intza Alkainek egin zituen.

Kartelean izandako aldaketa hau ederki baliatu zuten ere Andoingo bertsolariak agurrean herrikoekin sartzeko.

Andoingo bertso eskolatik fin aritu ziren Jon Eskudero, Aritz Eskudero eta Ion

Beloki. Aurkezpen bertsoarekin argi geratu zitzaizen bertaratutakoek Andoingoak irabazteko gogoz etorri zirela herrira, tartean Unai Muñoa gogoan izan zuten ea Palestina aldean dabilen galdezka edota Ane Labakaren aita. Saiatu ziren herriko taldea zirikatzen hau osatzen zuten kideen jaioterriak zeintzuk ziren azpimarratuz.

Saio osoan zehar, ia bi ordukoa, umorea izan zen nagusi eta bertsoen mailaz haratago, jendearen irribarrea behin eta berriz eragin zuten bi taldeek.

Andoindik ikusleak etorri ziren arren, ezin izan zuten amaierako bozketan ezer egin.

Aurreko bi saioetan, Tolsa eta Hernaniko bertsolariak gertatu bezala, herriko taldeak eskuratu zituen boto gehien 21 eta atzetik geratu



Jon Eskudero, Aritz Eskudero eta Ion Beloki fin aritu ziren bertso desafioa irabazteko.

zen Andoingoa 19rekin. Alde txikiak islatu zuen ikusitako saioan indarrak oso berdinduak egon zirela.

Azken saioa

Bertso desafio sorta abiatu zuen Erra! bertso eskolako azaroan herriko bertso eskola "indartu" eta bertsolari gazteei "bestelako plaza batean" bertsoan egiteko aukera emateko helburuarekin.

Saio arinak izango zirela aurreratzen zuten orduan, umoretsuak eta publiko guztiei zuzendutakoak. Hala izan dira orain artekoak eta laugarrena eta momentuz azkena, otsailaren 6koa ere halakoa izango dela aurreratzen dute.

Hitzordua Jalgin izango dute bertsozaleek 22:30ean eta kasu honetan, Azpeiti

Errezil eta Azkoitiko Erriarraitz Bertso eskolakoak izango dira herrikoekin lehian.

Saioa irekia eta doan izango da, orain arte bezala, eta ikusi beharko da ea herriko taldeak lautik lau irabazteko gai den.

Antolatzaileek azken honetara ere gerturatzeko deia egiten diete herritarrei bertso gau ederraz gozatzeko.

Euskal Inauterian murgiltzeko lehenengo urratsa

Inauteriak gertu daude, otsailaren 14 eta 15eko asteburuan ospatuko dira, eta mozorroak prestatzeko garaia heldu zaie haur zein helduei. Herriko elkarteekin adostuta udalak herria larunbatean ipuinak eta marrazki bizidunak gaiarekin girotzeko proposamena luzatu du eta dagoeneko talde ezberdinak lanean daude egun honetarako.

Bestalde, Ttakunek azken urteetan egin bezala, Euskal Inauteriak antolatuko ditu otsailaren 15ean, igandean. Ohi bezala Euskal Herriko txoko ezberdinetako jantziak soinean, hainbat dantza eskainiko dituzte desfilean parte hartzera animatzen diren herritarrek. Hartza ere erreko da asteburu luzeari amaiera emateko.

Urtero entsegu irekiak egiten dira dantzak ikasteko. Herriko elkarteak lasarteoriatarrak festa honen parte izatea nahi du.

Horrela izanda, egun honetan herrian euskal inau-

teri giroa nagusi izan dadin, jendea txantxoz jantzeria animatzen dituzte Ttakunetik. Hain zuzen, txantxo jantzia ez dutenentzat bi urtetan eskuorria banatu da, etxean jantzia modu errazean egin ahal izateko edota ideiak emateko. Aurtengoan, festan ez murgiltzeko aitzakiarik egon ez dadin, mozorroa egiteko tailerra antolatu nahi izan du Ttakunek Junkal Perezek azaldu moduan.

Familia osoarentzat

Tailerra urtarrilaren 26ean astelehenean edota larunbatean, urtarrilak 31, egiteko aukera izango da.

26ean 18:00etatik 19:30era eta 31ean berriz, goizeko ordutegian 11:00etatik 12:30era egitea izango da.

Tailerra doan da eta heldu zein umei zuzendutakoa, "Santo Tomas eguna iritsi aurretik Talo tailerra antolatu genuen eta honek izan zuen arrakasta errepikatu nahi genuke honekin ere".

Anbulatorioko eraikinean



Horrelako txantxo jantziak egitea da Ttakunek antolatutako ikastaroaren helburua.

dagoen bigarren solairuko geletako batean egingo da eta honetan, birziklapena ere landu nahi denez, parte hartzaileei oihal zaharrak eramateko eskatzen zaie.

Horrekin batera, "egokia litzateke bakoitzak lastozko txano bat ekartzea hau apaindu eta jantzia osatzeko".

Zakuekin egingo dira

mozorroak "modu errazean egingo ditugu, gure helburua haur zein helduentzako ikastaro entretenigarria egitea delako". "Antolakuntzak jarriko ditu jantziak egiteko zakuak", azpimarratu du Perezek.

Izena eman

Honetan parte hartzeko

aurrez izena eman beharko da. Ttakuneko bulegotik pasata edota 943 37 14 48 zenbakira deituta.

26ra arte izango da aukera izena emateko "baina ahalik eta lasterren egitea gomendatzen dugu". Honekin batera gogoratu nahi izan dute, bi egunetan ikastaroa euskaraz emango dela.

Ametsaren amaiera

Aldatzen Laguntzen antzerki taldeak 'Ametsen Zirkoa Salgai' obra eskaini zuen kultur-etxean

Ion Martinez eta Saioa Royo artistek ordubeteko emanaldia eskaini zuten ostiralean, Manuel Lekuonako auditorio nagusian. Xorroxin eta Azken Putz klownen azalean sartuta, zirko munduaren gainbehera erakutsi zuten, umoretik eta tragikotasunetik. Kukuka dantza eta antzerki eskolak gomendatuta antolatu zuen emanaldia Lasarte-Oriako Udalak eta ikusle aldetik harrera polita izan zuen obrak.

TXINTXARRI

Aldatzen Laguntzen Donostiako antzerki taldearen antzezlanak izan zen ostiralean Manuel Lekuonan.

Hasieran komedia eta zirko giroa nagusitu arren, gutxinaka drama ukitua hartuz joan zen Ion Martinezek eta Saioa Royok taularatu-takoak.

Antzezlanean, Zirkoan ohikoak izaten diren eszena eta pertsonaiak ikusi zituzten lasarteoriarrek, pailazoek esketxak, Jurgi iparraldeko magoaren trikimailuak, Joxepa txiste kontalari eta

funanbulista, animalia domatzaile berezia bere elefante eta hartzarekin, gizon bala, Maddi lamia... Publikoaren parte hartzea ere eskatu zuten.

Zoritxarrez, funtzioa amaitu baino lehen agerian geratu zen zirkoaren egoera. Bi pailazoak zirkoako pertsonaia guztiak ordezkatzeko saiata arren, ez zuten lortu ikuskizuna borobiltzea. Ametsa zen zirkoaren gainbehera. Dena salgai jarrita zuten bi pailazoek nahiz eta euren ametsa ixten ikustearen aurrean saiakera guztiak egin.

Palomitak saltzen eta



Jon Martinez eta Saioa Royoren lanak txalo zaparrada luzea jaso zuen amaieran.

umorez hasitako ikuskizunak tristurari lekua utzi zion. Euskal Herriko txoko askotatik pasa ondoren, Amets Zirkoaren azken emanaldia zen.

Aldatzen Laguntzen taldeak martxoan estreinatu

zuen euren hirugarren antzezlan hau eta azaldu moduan, Balada triste de Trompeta, Noviembre, Charles Chaplin-en Candilejas, Circo de los Horrores, La Zarandaren "Nadie lo quiere creer", Publikoari gorroto eta

gisa horretako lanak inspirazio iturri izan ziren hau sortzeko garaian.

Antzezlanak bukatu ostean, aktoreek eskertu zuten ikusleek harrera beroa baita Kukukak euren lana herrira ekartzeko aukera eskaintzea.



✓ Etxebizitzak **185.000 €-tik aurrera**, terrazekin eta Santa Barbararako bista inbidagarriekin.

✓ Erabateko personalizazioarekin!

residencial
zabaleta (berri)
bizigunea

Kutxabank-en erakundearen finantzaketarekin

k kutxabank

www.zabaletaberri.es

943 36 89 42

MENDI-BIZIKLETA.-

Irisasi BTT proba igandean, Andatzen barrena

Bi ibilbide izango dituzte aukeran ziklistek, 30 edo 40 kilometrokoak

Duela hiru urte antolatu zuen Usurbilgo Irisasi BTT taldeak 'Hotzak akabatzen' bizikleta martxa herrikoia lehen aldiz eta iaz 300 bat txirrindulari izan ziren proba honetan parte hartu zutenak, horietako hainbat lasarteoriatarrek. Andatza mendizale taldea, BAZPI Txirrindularitza Eskola eta Gipuzkoako DYAre laguntzarekin, dena prest dute igandean Andatzen barrena pedalei eragiteko. Urtarrileko azken igandean ziur hotza, lokatza eta euria izango direla protagonista, probari gogortasuna gehituz.

TXINTXARRI

Irteera goizeko 9:30etan emango da Usurbilgo frontoian eta 30 eta 40 kilometroko bi ibilbide izango dituzte aukeran partaideek. Ibilbide luzeak 1.300 metroko desnibel positiboa izango du eta 900ekoa ibilbide motzak.

Antolatzaileek halere, ibilbidea aldatu dezakete eguraldiaren baldintzen eta mendiararen egoeraren arabera. Izan ere, Andatzatik egurra ateratzen ari dira eta ez dakite ziur gainaldea nola topatuko duten.

Izen-ematea irekita

Inskripzioari dagokionez, Internet bidez egin daiteke *kirolprobak.com* helbidean urtarrilaren 23a baino lehen. Federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu

gabekoek 18 euro. Egunean bertan ere izango da izena emateko aukera, goizeko 8:30etik 9:15era. Kasu horretan, guztiek 22 euro ordaindu beharko dituzte.

Probaren xehetasunak

Parte-hartzaile guztiek bi opari jasoko dituzte, Saizar sagardotegiko sagardo botila eta Craft markako kirolerako kamiseta bat. Horiez gain, beste hamarnaka opari zozketatuko dira ziklista guztien artean.

Indarrak berreskuratzeko aukera ere izango da proban zehar. Ibilbideko postuetan janaria eta edari beroa izango dituzte eta proba amaitzean hamaiketako banatuko da txirrindulari guztien artean. Ibilbidean asistentzia-laguntza izango da eta dutxa beroa hartzeko aukera Oiardo kirolde-



Lasarte-Oriako BTT zaleentzat ezinbesteko hitzordua da Irisasi martxa.

gian. Mangerak ere jarriko dira bizikletak lokatzez garbitzeko.

Lasarteoriatarrek, prest

Denera herriko 20-30 bat lagun batuko direla esan du Mikel Calvo MKL dendako mekanikari eta txirrindulariak: "Zirkuitua polita da, ez da bereziki teknikoa, baina bidean ziur lokatza egongo dela eta horrek gauzak zailduko dizkigu. Gainontzean giroa bikaina izan ohi da eta antolakuntza ere bai, ez dago aitzakiarik, animatu!".



Andatzen barrena egin beharreko kilometro asko lokatza artean izango dira.

EHIZA.-

Gari Arteaga garaile ehiza txikiko Urnietako txapelketan

Adarra-Aballarri inguruan ospatu zen joan zen asteburuan Santa Cruz elkarteak antolatutako ehiza txikiko txapelketa eta Garikoitz Arteaga herritarrek jantzi zuen txapela, Pitu txakurraren laguntzaz. Bost pieza bota zituen denara Arteagak eta horrek 510 puntu eman zizkion. Bigarren egin zuen Xabier Amantegik, lau pieza eta 415 punturekin; hirugarren postuan berriz, Borja Granado eta Ibai Gorostidi sailkatu ziren launa pieza bota eta 410na puntu eskuratu.

Harrituta zen Arteaga 12 parte-hartzaileen artean onena izan ostean: "Zorte kontua izan da, goizean goiz askatu zituzten faisai eta eperak eta denek mendian gora jo zuten bitartean nik behera egin nuen. Lehen ordu erdian bota nituen bostak".



Gari Arteaga pozarren txapela jantzita, gainontzeko saridunekin batera.

Lau orduko epea izan zuten parte-hartzaileek goizeko 9:30etatik hasita Adarra inguruan gora eta behera ibilita, ahalik eta ale gehien ehizatzen. Arratsaldeko 13:30ak baino lehen Besabin egon beharra zeukaten azken kontaketa egiteko.

"Behe-lainoak asko zaildu zizkigun gauzak, arerioak ere gogorak ziren, kirolariak. Ni oso sasoian ez nagoenez, ez nuen nire burua gehiegi estutu eta begira, sekulako zortearekin eper eta faisaiak parean tokatu zitzaizkidan", zioen Gari Arteagak.

ERRUGBIA.-

Asteburu gazi-goza Beltzak errugbi taldearentzat

Larunbatean Michelinen errugbi partida ederrez gozatzeko aukera izan zen. Goizean 14 urte azpikoen mailako bi taldeak erraz gailendu ziren Riojaren aurka. A taldeak 28-0eko emaitzarekin amaitu zuen eta B taldeak berriz, 42-0ekoa egin zuen. Arratsaldean, 16 urte azpikoen taldea oso erraz aurreratu zen markagailuan Gasteizko Gaztedi taldearen aurkakoan, partida 61-5eko emaitzarekin bukatu zen etxekeontzat. Eguna ordea ezin izan zuten borobildu izan ere, 18 urte azpikoen mailan, 10-48 galdu zuten etxekeok. Hauek ere Gaztediren aurka neurtu zituzten indarrak.



16 urte azpikoak erraz aurreratu ziren markagailuan Gaztediren aurka.

Agenda

Igandea, Manuel Lekuona Kultur-etxean 17:00etan



Yugo eta Lalaren abenturak

"Yugo eta Lala" film txinatarra haurren zinema saioan ikusi ahalko da. Yugo hamar urteko neskatila bihurria eta abenturazaleak aitari kontatzen dio: bera izan zela hodeietako fantasiako erresuma bateko giza bisitari bakarra. Hodeietako erresuman Lala eta Osaba Artzaren laguna egin zen, eta hirurek Tigre Jeneralaren aurka borrokatu zutela. Agintariaren nahia, Lala bere ordezkoa izatea zen. Euskaraz. Sarrera 3,80 euro.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 23, 22:00etan

"Paco de Lucia: la búsqueda" film-dokumentala. Okendo zinema taldearen Zine forumean. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 25, 19:30ean

"Exodus: dioses y reyes" filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 24, 20:00etan

Royal Opera Housen grabatutako

Pucciniren "Tosca" kontzertuaren emanaldia. Hitzak gazteleraz azpitolatuak daude. Sarrera Interneten 7,50 euro eta bertan 9 euro.



MENDI KAFE ROCK

Larunbata 24, 20:00etan

Lee Junior abeslariak 80. hamarkadako kantak eskainiko ditu. Gabinete Caligari, Loquillo, Los Rodriguez, Kiko Veneno etab.en abestiak entzuteko aukera. Sarrera doan.

Dantza

OKENDO PLAZA

Igandea 25, 12:00etan

Plaza dantza saioa. Hitzordu irekia da eta eguraldi txarra egitekotan, Elizatze plazako arkupetan egingo da (BM).



Literatura

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 27, 18:30ean

Irakurle Txokoan Mari Luz Estebanen "Amaren heriotzak libreago egin ninduen" poesia liburua aztertuko da. Bertaratutakoek Uxue Alberdi idazle eta bertsolariearen laguntza

izango dute lanaren inguruan hausnartzeko eta ondoren, idazlearen bisita izango dute eta berarekin hitz egin ahal izango dute herritarrek.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urtarrilan zehar

Ttakun kultur elkarteak antolatuta, abenduaren 21ean Okendon egin zen Santo Tomas azokako eta Abenduaren 24ean, Olentzeroren etorrerako argazkien bilduma izango da ikusgai hilabete osoan zehar.

Ikastaroa

VILLA MIRENTXUN

Asteazkena 21, 18:00etan

Udalak Baketikekin antolatutako ikastaroa "Izan proposamena pertsonak izateko hezkuntza". Doan da eta bi saio izango dira, bigarrena 28an. Ikastaroa doan da baina aurrez izena eman behar da 943 25 10 05 zenbakian edo m.aseginolaza@baketik.org helbidean.

Astigarraga

Hitzaldia

KULTUR-ETXEA

Asteazkena 21, 18:00etan

"Errespetuzko komunikazioa bizitzarako komunikazioa" hitzaldia eskainiko du Nere Mendizabal psikopedagogoa eta gizarte hezitzaileak.

Antzerkia

KULTUR-ETXEA

Igandea 25, 17:30ean

"Hor Konpon Marianton" haurrentzako ikuskizuna. Sarrera 2 euro.

Herritarren txokoa

Korrikaren materiala salgai

Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrak euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ordutegian.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urtarrilaren 23an, arratsaldeko 17:00etan.

Lasarte-Usurbil institutuko saria

Lasarte-Usurbil B.H.I Institutuko saskiaren zozketa egin eta zenbaki sari-duna 0224 da. Odol ateratzeak

Odol ateratzeak

Hilabeteko azken asteartean urtarrilaren 27an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitetzte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Udal erregistroa, lekualdatuta

Udalak jakinarazi duenez, udaletxe berria martxan jarri zenetik erregistroak arazoak eman ditu langileen laneko baldintzen egokitasuna eta segurtasuna dela eta. Ondorioz, egokitzapen lanak burutuko dira hurrengo asteetan. Bitartean, erregistroa lehenengo solairura lekualdatuko da. Udalak barkamena eskatzen du sor ditzakeen kalteengatik.

Hemeroteka

Duela 1197 ale



2013ko apirilean eraitsi zuten Young Play diskoteka. Asko ziren bertara astebururo oinez joaten ziren herritarrak eta horren harira argitaratu zuen Txintxarrik 1995eko urtarrilaren 27an albistea. "Gazteek oinez egiten dute bidea (...) Eskuetan poltsa bana dutela abiatzen dira eta txoko hauetaz baliatzen dira erositako edariak nahastu eta edateko".

Zabaletako bizilagunen artean ezegona nagusia zen "arazoa larria da. Gazteen artean denetik dago, noski, jatorrak egin badira baina edariekin igotzen diren horiek... mozkortzea besterik ez dute bilatze, hori da helburua. Nik salaketa bat egin dut kristalak puskatu zizkidaten eta gasaren tubo erabat okertuta aurkitu nuen". "Udalera jo ezkerro, Ertzainei deituzko esaten digute eta hauek, berriz, municipalari dagokiela arazoa".

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Otsaileko asteazkenetan bidaiatzeko aukera

Diaporama saioak antolatu ditu Ttakunek Jagin, guztiak 21:30ean izango dira

Ttakunek antolatzen duen bidai diaporamen zikloa otsailean zehar egingo da. Aurtengoan, Jordania, Maroko Atlas ezezaguna 10 egunetan, Pirinioak eta Alpeak eta Vietnameko hegoaldea eta Kanbodia gertutik ezagutzeko parada izango da herrialde hauetan izan diren hainbat herritarrek prestatutako argazki proiektioei esker. Guztiak 21:30ean izango dira Jalgin otsailaren 4, 11, 18 eta 25ean.

TXINTXARRI

Urteroko hitzorduari jarraiki, hainbat herritarrek munduan zehar bitzako esperientziak azalduko dituzte irudien laguntzarekin.

Azaroan egin ohi zen bidai zaleen topaketa otsailera aldatu zen iaz horrela "urte berriko oporraldiak antolatze-lagunak izan daitezke saioak".

Lehenengo emanaldia otsailaren 4koa, Sonia Rodriguez herritarrek eskainiko du. "Jordania bizikletaz eta eskalatzeko" da bere saioari emandako izena eta horrela Jordanian barrena bizikletaz egindako ibilbide eta bisitak azalduko ditu. Horretaz gain, eskalada zaleentzat leku onak eskaintzen ditu herrialdeak eta aukera ez zuen galdu nahi izan Rodriguezek. Guztiak mintzatuko da argazki ederrekin lagunduta Jalgin egingo den saioan.

Jordaniatik, Marokora egingo da salto. Otsailaren 11ean Josu Agirretxerekin. Bere aurkezpenari "Atlas ezezaguna 10 egunetan" izena jarri dio eta mendia ez ezik, mendikate honen inguruan ezagututako herrixkak eta jendeaz hitz egingo du.

Mendia utzi gabe, Ostadar mendi saileko kide batzuek

Pirinio eta Alpetako irudiak ekarriko dituzte otsailaren 18ko saiora. Egonaldi ezberdinetan, mendiak igo edota eskalatzeko aritu dira paraje ederretan. Hauek urtero dute ohitura eskalatzera irteerak antolatze eta ez da lehenengo aldia izango Jalgiko hitzordu honetan parte hartzen dutela.

Azkeneko saioa otsailaren 25ean izango da. Kasu honetan Ainhoa Ortegak bizitakoak ezagutzeko aukera izango da. Vietnam hegoaldean izan zen baita Kanbodian ere eta hauen inguruan arituko da.

Solasaldia

Saio guztiak 21:30ean izango dira Jalgin. Batzaz beste, 40 minutuko irudi bidezko aurkezpena prestatu dute partehartzaileek eta hauen ondoren, ikusleek nahi beste galdera plazaratu ahal izango dituzte ikusi eta entzundakoaren inguruan. Helburua solasaldia egitea da giro onean. Tarte horretan izango da zer jana antolatzaileen esku. Saioak doakoak dira eta antolatzaileek hauetan parte hartzerako gonbidatzen dituzte herritarrek. Aukera aparta, munduko txoko, kultura, paisaia... ezberdinak ezagutzeko etxetik ia mugitu gabe.



Atlas mendikate inguruak eta Kanbodiako parajeaz gozatzeko aukera izango da Josu Agirretxe eta Ainhoa Ortegarekin.

